

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Lurzatiak lagatzea Okondoko VI-10184 ehiza esparrua berritzeko

Administrazio honek VI-10184 ehiza esparrua berritzeko espedientea hasi du. Horren titularra, jabeen elkartearen ordezkartzan, Okondoko Udala da.

Ehiza esparru horretan sartu dira horretarako finkatutako inguruaren barruko lurzati guztiak, nola publikoak hala pribatuak, eta horren berri ematen da iragarki honen bidez, eragindako lursailen jabeek baimena eman ahal izateko; hain zuzen ere, martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko ehizarenak, 21. artikuluan aipatzen duen baimena eman ahal izateko. Iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera hamabost egun baliioduneko epean kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek isilbidezko baimena eman dutela ulertuko da, bai eta udalak baimena daukala ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza esparruan sartzeko ere.

Lurzati publikoen artean onura publiko mendi (OPM) hauek sartzen dira, Okondoko Udala-renak direnak:

- 78. ZENBAKIKO OPM, ARANETA ETA ORBE
- 79. ZENBAKIKO OPM, ARETXARRO ETA NEGUARAN
- 80. ZENBAKIKO OPM, ARROLA ETA ARAMBALZA
- 81. ZENBAKIKO OPM, AIARZA ETA GALLARAGA
- 83. ZENBAKIKO OPM, CAMPO DEL CURA ETA SOLAETA
- 84. ZENBAKIKO OPM, ANSUSIETA
- 85. ZENBAKIKO OPM, LUJAMENDI
- 88. ZENBAKIKO OPM, PAGOLAR

OPM horien kartografia espedientean jasota dago. Espediente hori udal honetan dago interesdunen esku.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Okondo, 2020ko abuztuaren 27a

Alkatea

ENERITZ ALONSO MONTAÑO